

Abarrik

UNAI BREA

Amikuzeko kronikak, hil nahi ez duen euskalkian emanak

Hotz bero, Mixel Thikoipe. (Maiatz 2007)

Euskalgintzaren zeregine-tako bat, tamalez, Hego eta Ipar Euskal Herrien artean zubiak eraikitzea izaten da. Nahi genukeen baino zabalagoa da Bidasoa, eta zer esanik ez Añamendiak. Zubi horietako bat aurtengo Durangon –onartu beharko da herri izena ez ezik denbora adberbioa dugula honezkeror– egin zen, zenbait euskal herritarrek Espainiako Konstituzioaren kariaz nahitaez gozatu behar



Mixel Thikoipe

duten zubian hain zuzen. Abendu hotzean, *Maiatz* lapurtar elkartearen izen zen omendua, eta omenaldiaren aurrak *Maiatzek* emandako zenbait lore zipriztindu zituen bide batez.

Hotz bero liburua da loreotako bat, eta Mixel Thikoipe baxenabatarra hura hazi duen lorazaina. Hainbat trebezia badu Thikoipek egia esan: kantaria, gitarra jolea eta kantu sortzailea da, esaterako. Idazlea ere bai, bistan da. *Hotz bero* lanean, hamazortzi istorio labur eman ditu; izenburuak salatzen duenez –eta kontrazaleko iruzkinak argitzen– hotza eta beroa azaltzen dira ipuinotan, barrea eta negarra, bizitzaren ispilu. Eguneroko kontuak baitira hizpide liburuan, egunero ikusten ez den hizkuntza biziz eta estilo airosez emanak. Edukiaren bezainbatean ere, hotza nahiz beroa. Distirantak dira batzuk, beste batzuk baleokak baino ez, ederrak denak.

Mixel Thikoipe Amenduzen jaio zen, eta Domintxainen bizi da. Biak ere Amikuzen daude, Nafarroa Behereko eskualderik xiberotarrenean apika. Hango giroa jaso du egileak, eta hango euskara baliatu. Nafarroa Beherea eta Zuberoa dira euskal hiztun portzentajerik handiena duten herrialdeak, baina horietan ari da hain justu euskara azkarren galtzen. Iraungipen-data jartzen ere ausartzen hasiak dira batzuk. Hori horrela, tentazio handiegia da liburu hau amikuzeraren epitafiotzat har genezakeela esatea. Ez gara hain ezkor jarriko, baina hain baikor ere ez: hau epitafioa bada, ez da azkena izango; egongo da denbora gehiago idazteko. Bestalde, esan dezagun euskalkia erabiltzea ez dela oztopo edozein euskaldun alfabetatuk *Hotz bero* ulertzeko. Lan apur bat eginez, ez dugu ukatuko. Oraingoan, batzuk-batzuk agertu dira lan hori egiteko prest: lehenengo argitaraldia agortua da, eta bigarrena bidean. Bada harririk Bidasoa zabalegiaren gaineko zubiak eraikitzeko.

Istilu

**Jantziak,
osagarriak...**

**Deitu eta katalogoa
eskatu !!!**

615 73 21 12

www.istilu.com

erdiko katera

2007ko abenduaren 23a

ARGIA